



LABURREAN

Irlandak ospitale pribatu guztiak nazionalizatu ditu pandemiak iraun bitartean

Liburu-denda independenteak itxita, Amazonek triskantza eragin dezake sektorean

Herritarren telefonoetako informazioa "helburu polizialestarako" erabiltzeko prest azaldu da Espainiako Gobernuak

Munduko 76 herrialde txiroenei kanpo-zorra urtebetez atzeratzea onartu dute G20ko estatuek

Espainiako CIS inkesta etxeak galdera batean iradoki du gobernutik ez datorren informazio guztia zentsuratzea

Amazoniako deforestazioa %50 hazi da koronabirusak eragindako kontrol faltagatik

Fusila eskutan, protesta egin dute AEBetan konfinamendu neurrien aurka

IRITZIA

Konfinamenduak ekarritako berri askotarikoen artean, *Blavatnik School of Government* delakoa dago. Labur definitzeko, politika publikoari buruzko ikastegi espezializatua da eta Oxfordeko Unibertsitatearen barrenean dago.

Parte txarreko birusaren krisiari emandako erantzun politikoak alde-ratu ditu erakunde ingelesak. Neurri komuneren artean daude ikastegiak ixtea, bidaiak murriztea, urruntze soziala ezartzea edota osasungintzaren hornidura handitzea. Hala ere, estatuek ez dituzte berdin ulertu hitz berak. Horren adibide argia da konfinamendu eredu ñabarra Europar Batasunean (EB): alde

handiak daude 27 estatueta neurri murriztaileen artean.

Hartara, konfinamendu orokorra gorabehera, ez gaude (inolaz ere) berdin konfitatuak. Esaterako, Espainia izeneko eremu juridikoan bizi garenok, Bulgarian bezala, ezin gara paseatzera atera; EBko gainerako 25 estatueta, berriz, jarduera fisiko indibiduala baimenduta dago.

Kasu: konfinamenduak luzatzen ari diren honetan, hitz berbera erabilia ere, ez dira gauza bera luzatzen ari. Eta, konparazioaren egileek ohartarazi bezala, neurriak drakoniarragoak izateak ez du esan nahi, berez, kudeaketa hobea denik. ●

Gobernu eskola(k)



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA